

**10/2020 TXOSTENA, URRIAREN 30EKOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA****XEDEA: KONTRATATZEKO DEBEKUAREN ADIERAZPENA, SERVICIO
ASISTIDO MÉDICO URGENTE SL, TRANSPORTE SANITARIO
BIZKAIA SL ETA AMBUBASK SA ENPRESEI DAGOKIENA.****I.- AURREKARIAK.**

Servicio Asistido Médico Urgente SL (aurrerantzean, SAMU), Transporte Sanitario Bizkaia SL, AMBUBASK SA eta Ambulancias Gipuzkoa S Coop erakundeek, AMBUBASK 2017 ABEE osatzeko konpromisoarekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontratu-lizitazio honetan hartu zuten parte: «*Anbulantzia ez-asistentzialetan, ohikoetan eta garraio kolektibokoan garraio sanitario programatuaren zerbitzua ematea Euskadiko osasun-sistemaren erabiltzaileei Bizkaiko osasun-barrutian – Ermua, Mallabia, Otxandio eta Ubidea salbu– eta Arabako osasun-barrutiko Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondoko udalerrietan*» (Esp.:68 2016-S). Aipatutako enpresek, ABEE bat osatzeko konpromisoarekin, esleipen-prozedurako eskaintza ekonomiko abantailatsuen aurreratu zuten.

Beharrezkoak diren gaitasuna eta kaudimena egiaztatze eskatu ondoren, egiaztapen horiek behar den denboran eta eran egiaztatu zituzten.

Gauzak horrela, kontratazio-organoak eskatu zien, proposamen adjudikaziodun gisa, garai hartan indarrean zegoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak (aurrerantzean, SPKLTB) ezarritako epean aurkez zezatela adjudikazioa gauzatu aurreko dokumentazioa. Adierazitako epean aurkeztu ez zuten, eta Administrazioak horren inguruko argibideak eskatu ondoren, enpresetako baten ordezkariak kontratazio-organoari eskatu zion prozeduran atzera egitea, argudiatuz ezen agiriek edo pleguek ez zituztela jasotzen alderdi batzuk, orduan argitaratu gabe zegoen etorkizuneko hitzarmen kolektibo bati begira (2020ko

urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean) negoziatzen ari zirenak; horrenbestez, hitzarmen hori ezin zen une hartan aplikatu, ez eta agiriak edo pleguak aurkaratzeko unean ere (gainera, ez zituzten agiri edo pleguak aurkaratu).

Egoera horren aurrean, ulertu zen lizitzaileak erretiratu zuela bere eskaintza, eta sailkatutako bigarrenari eskatu zitzaion dokumentazioa.

Prozeduran esku hartu zuten guztiei adjudikazioaren ebazpenaren berri eman ondoren, SAMU enpresaren kudeatzaileak kontratazioaren alorreko errekurtsio berezia jarri zuen kontratuaren adjudikazioaren aurka, argudiatuz, beste gai batzuen artean, ez zuela bere eskaintza erretiratu.

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (aurrerantzean, KEAO), 2018ko martxoaren 19ko 38/2018 ebazpenaren bitartez, errekurtsioa ezetsi, eta zehapen bat jarri zion fede txarrez jardun zuela iritzita.

Aipatutako 38/2018 Ebazpena administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurritu zuen SAMU enpresaren kudeatzaileak (292/2018 Prozedura arrunta). 2018ko uztailaren 10eko 111/2018 autoaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak iraingintzat jo zuen jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, demanda ez zelako aurkeztu horretarako emandako epearen barruan.

Egoera horren aurrean, Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordeak, 2018ko urriaren 15eko Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen hasiera ematea SAMU, Transporte Sanitario Bizkaia SL, AMBUBASK SA eta Ambulancias Gipuzkoa S Coop enpresei kontratatzeko debekua ezartzeko espedienteari.

Eraginpeko enpresei entzuteko izapidea eman ondoren, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren txosten juridikoan, iritzi zaio ez dagoela frogatuta Ambulancias Gipuzkoa S Coop enpresaren ordezkariak doloz, erruz edo arduragabekeriaz jardun duenik, baina frogatuta dago, aldiz, SAMU, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA erakundeen ordezkariak (pertsona bera da hiru kasuetan) doloz eta fede txarrez jardun zuela; horregatik, ulertzen da, eskaintza erretiratzeko kasuaren aurrean gaudenez –SPKLTBren 60.2.a) artikulua–, aipatu diren azken hiru enpresa horiei kontratatzeko debekua ezarri beharko litzaiekeela, baina ez Ambulancias Gipuzkoa

S Coop enpresari. Esan behar da azken enpresa honek soilik % 1arekin hartzen zuela parte ABEE konpromisoan.

Osasun Sailak, 2019ko martxoaren 6an, dagokion txostena eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, SAMU, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA erakundeei –hiru enpresak A.L.M.C. jaunak ordezkatu zituen– kontratatzeko debekua ezartzeko aipatutako deklarazioari buruz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak, beraz, apirilaren 5eko 7/2019 Txostenaren bidez, aldeko txostena eman zion SAMU, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA enpresei kontratatzeko debekua ezartzeko proposamenari.

Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordearen 2019ko apirilaren 10eko Ebazpenaren bidez, kontratatzeko debekua adieraztea erabaki zen honako erakunde hauei: SAMU; Transporte Sanitario Bizkaia SL; AMBUBASK SA, guztiak ere A.L.M.C. jaunak legez ordezkatuak. Aipatutako adierazpen horren iraupena bi urte eta hamaika hilabetekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatzen denetik zenbatzen hasita.

Osasun sailburuaren 2019ko uztailaren 18ko Aginduaren bidez, ezetsi egin zen Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordearen 2019ko apirilaren 10eko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtoa.

SAMU eta Transporte Sanitario Bizkaia SL erakundeek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri zuten Osasun sailburuaren 2019ko uztailaren 18ko Aginduaren aurka (740/2019 prozedura arrunta - 1. atala). Era berean, AMBUBASK SA erakundeak administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri zuen aipatutako aginduaren aurka (817/2019 prozedura arrunta, 1. atala). Abian jarritako administrazioarekiko auzien prozedura horietako batean, auzia jarri zuen aldeak alegatu zuen iraugita geratu zela kontratatzeko debekuaren adierazpenerako aurrera eramandako administrazio-prozedura.

Debekuaren adierazpena 2019ko azaroaren 29an inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.

Aipatutako debeku-adierazpena 2019ko abenduaren 19an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (241. zk).

Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordearen 2020ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez, iraungitzat deklaratu zen SAMU; Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA erakundeei kontratatzeko debekua ezartzeko prozedura. Ebazpen horretan agindu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroari jakinarazi ziezaiola bertan behera utzi zezala kontratatzeko debekuaren inskripzioa, eta agindu zuten, orobat, argitaratu zedila Ebazpenaren edukia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2019ko abenduaren 19an argitaratutako iragarkia indarrrik gabe uzteko, eta jarduketak artxibatzeke agindua ere eman zuten. Ebazpen berean adierazten denez, preskripziorik egon ezean, beste prozedura bat hasi ahal izango da.

Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak, 2020ko uztailaren 13ko txostenean, aditzera ematen du ezen, aurreko prozedura iraungitzat deklaratu eta jarduketak artxibatu behar izan badira ere, gaiaren mamia, hau da, kontratatzeko debekuaren adierazpena eragin zuen kausa edo jarduketa lehengo berbera dela oraindik ere, eta preskripzio-epea oraindik agortuta ez dagoenez, beharrezkotzat jotzen dela bigarren espediente bat abian jartzea kontratatzeko debekua ezarri ahal izateko.

Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordeak, 2020ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen hasiera ematea SAMU; Transporte Sanitario Bizkaia SL, AMBUBASK SA eta Ambulancias Gipuzkoa S Coop enpresei kontratatzeko debekua ezartzeko bigarren espedienteari.

Osasun Sailak, SAMU, Transporte Sanitario Bizkaia SL, AMBUBASK SA eta Ambulancias Gipuzkoa S Coop enpresei kontratatzeko debekua ezartzeko bigarren espedientea izapidetzearen barruan, dagokion txostena eskatu dio, 2020ko urriaren 2an, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK.

APLIKATZEKO DEN ARAUDIA ETA TXOSTENA EMATEKO ESKUMENA

Prozedurak iraungitzeari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 95.3 artikulua hau ezartzen du: *«Prozedura iraungitze hutsak ez du besterik gabe ekarriko partikularraren edo Administrazioaren akzioak preskribatzea, baina prozedura iraungiek ez dute geldiaraziko preskripzio-eparearen zenbaketa. Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak. Prozedura berrian, betiere, bete beharreko izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea».*

Kontuan hartuta, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak 2020ko uztailaren 13ko txostenean adierazten duen bezala, aurreko prozedura iraungitzat deklaratu eta jarduketak artxibatu behar izan diren arren, gaiaren mamia, hau da, kontratatzeko debekuaren adierazpena eragin zuen kausa edo jarduketa, berbera dela oraindik ere, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 95.3 artikulua ahalbidetzen duela prozedura berrira gehitzea iraungitzea gertatu izan ez balitz berdin mantenduko zatekeen edukia duten egintzak eta izapideak, eta berriaz aipatzen ez direnez aurreko prozeduran jaulkitako txostenak bete beharreko izapideen artean, ondorioztatu daiteke, beraz, ez dela beharrezkoa Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak esku artean dugun gaiari buruzko beste txosten bat jaulkitzea. Hala ere, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak, 2020ko uztailaren 16ko txostenean, segurtasun juridiko handiagoaren mesedetan, bidezko jo du txostena eskatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuko 28.c) artikuluan jasotakoaren arabera.

Aipatutako kontratuaren administrazio-klausula zehatzen agiriaren hirugarren klausulan kontratuaren araubide juridikoa zehazten da. Kontratu hori arautzen duen araudiaren artean honako hauek daude:

«Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoa, kontratua adjudikatzeneko prozeduraren deialdia argitaratzeko unean indarrean zegoen bertsioan».

Kontratuaren lizitazioa argitaratu ondoren, indarrean sartu zen 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL). Lege horrek, lehenengo xedapen iragankorrean, hau ezartzen du, lege berria indarrean jarri aurretik hasitako eta adjudikatutako espedientei dagokienez: Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako kontratazio-espedienteak aurreko araudiaren bidez arautuko direla. Horretarako, kontratazio-espedientea hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago.

Lehenengo xedapen iragankorraren bigarren apartatuan adierazten da Lege hau indarrean sartu aurretik esleitutako administrazio-kontratuak, haien ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez –haien iraupena eta luzapena barne direla– aurreko araudiaren bidez arautuko direla.

Baina ez du ezer esaten kontratatzeneko debekuei buruz, ezta haiek deklaratzeko eta ezartzeko prozedurari buruz ere, kasu askotan (epaiak, ebazpen zehatzaileak...) ez baitira kontratazio-organoen eskumenekoak ere, baina egia da kasu honetan kontratazio-organok deklaratu behar duela debekua.

Dena den, debekuaren egitate sortzailea (eskaintza erretiratzea, Batzorde honek halakotzat onartzen du KEAOk irizpen hori eman duelako; horregatik, ez dugu horren inguruan eztabaidatuko) SPKLTBren mende dagoen kontratazio-prozedura baten izapideak egitean gertatu zenez, Batzorde honek uste du kontratatzeneko debekuaren izapideak egiteko aplikatu behar den araudia testu bategin horretakoa dela.

Eta aztertzen ari garen kasua eskaintza erretiratzeari buruzkoa denez, SPKLTBren 60. artikulua 2. apartatuaren a) letran sartu behar dugu:

«Aurreko zenbakian aipatutako kasuez gain, enpresaburuek ondorengo kasu hauetan ere ezingo dute kontraturik egin Lege honen 3. artikuluan jasotako erakundeekin, 61.bis artikuluan ezarritako baldintzetan:

a) Esleitzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute; edo kontratua beren alde esleitzea eragotzi badute, 151. artikuluko 2. zenbakian ezarrita dagoena epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio».

SPKLTBren 61.7.d) artikulua ezartzen du kontratatzeko debekua deklaratzeko prozedura ezin izango dela abiatu hiru urte baino gehiago igaro badira, 60.2.a) artikuluan aurreikusitako kasuetan, kontratua esleitu zen egunetik, baldin eta arrazoia proposamenak edo hautagaitzak bidegabeki erretiratzea bada; edota esleipena egin behar zen egunetik, baldin eta debekuaren oinarria 151. artikulua bigarren apartatuan ezarritakoa ez-betetzea bada.

Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak, 2020ko uztailaren 16ko txostenean, honako hau dio: *«Kontratazio-organoaren 2017ko azaroaren 21eko Ebazpenaren bitartez, zeinak ABEE interesdunak 2017ko azaroaren 27an jaso baitzuen, 10 egun baliouduneko epea ematen zitzaien dokumentazio jakin bat aurkezteko adjudikazioaren aurretik, 151.2 artikuluan adierazten den bezala; epe hori 2017ko abenduaren 10ean bukatzen zen. Prozedurak behar bezala jarraitu izan balu aurrera, adjudikazioa 2017ko abenduan gauzatu izango zatekeen. Adjudikazioa gauzatu behar zenetik 3 urte baino gehiago igaro ez direnez, kontratatzeko debekuaren deklarazio-prozedura epearen barnean hasi da».*

Hortik abiatuta, eta Batzorde honen eskumena ezartzeko, kontratatzeko debekuaren adierazpena kasu honetan nori dagokion erabaki behar da. Eta SPKLTBren 61.3 artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, 60. artikulua bigarren apartatuan aurreikusitako kasuetan, kontratazio-organoari dagokio kontratatzeko debekuaren adierazpena.

Hori kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28.c) artikulura jo behar da. Artikulu horretan ezartzen da Kontratazio Publikoaren

Aholku Batzordeak txostena egingo diola kontratatzeke debekuaren adierazpenari buruzko espedienteen ebazpen-proposamenari, legez xedatutako egoerak direnean eta adierazpena egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoei dagokienean.

Azkenik, aipatutako Dekretu horretan ez denez adierazten txosten hori Aholku Batzordearen Komisioek eman behar dutela, Osoko Bilkurari dagokio txostena onartzeko eskumena, Dekretuaren 30. artikulua 1. apartatuaren arabera.

Arestian adierazi den bezala, nahiz eta aurreko prozedura iraungitzat deklaratu eta jarduketak artxibatu behar izan diren, gaiaren mamiak, hau da, kontratatzeke debekuaren deklarazioa eragin zuen kausak edo jardunak berbera izaten jarraitzen du, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkuraren apirilaren 5eko 7/2019 Txostenaren xede izan baitzen. Txosten horren bidez, aipatutako kontsulta-organoak SAMU, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA enpresei kontratatzeke debekua ezartzeko proposamenaren aldeko iritzia eman zuen. Horregatik guztiatik, aipatutako 7/2019 Txosten horretan jasotako gogoeta juridikoak eta ondorioak mantendu egiten dira eta ondoren erreproduzitzen.

III. GOGOETA JURIDIKOAK.

Kontratatzeke debekua jartzeko lizitatzailleak bete ez zuen kasua SPKLTBren 151. artikulua 2. apartatuak ezarritakoa izan zen (adjudikazioaren aurreko dokumentazioa aurkeztea).

Apartatu horretan bertan ezartzen denez, ez bada errekerimendua behar bezala betetzen adierazitako epean, lizitatzailleak eskaintza erretiratzen duela ulertuko da, eta hurrengo lizitatzaileri eskatuko zaio dokumentazio berdina. Horretarako, eskaintzen sailkapen-ordenari erreparatuko zaio.

Gorago esan dugunez, txosten hau emateko eskumena nork duen erabakitzeke, SPKLTBren 60.2.a) artikuluan ezartzen da Legearen 3. artikuluan biltzen diren erakundeekin, 61.bis artikuluan ezartzen diren baldintzetan kontratatzea enpresaburuei eragotziko dien inguruabarrak direla, besteak beste:

«a) *Esleitzeko prozedura batean beren proposamena edo hautagaitza bidegabeki erretiratu badute; edo kontratua beren alde esleitzea eragotzi badute, 151. artikuluko 2. zenbakian ezarrita dagoena epe barruan ez betetzeagatik, doloa, errua edo zabarkeria dela medio».*

Gertatuari dagokionez, doloaren betekizuna agerian geratzen da KEAoren 2018ko martxoaren 19ko 38/2018 Ebazpenean, zeinaren bitartez ezetsi egin baitzen SAMUK adjudikazioaren aurka aurkeztu zuen errekurtsua eta zehapen bat jarri baitzitzaion fede txarra edo ausarkeria zela medio. Ebazpenean honako hau adierazten da hitzez hitz:

« [...] *Espedientean jasotzen da (eta errekurtsogileak onartu du) kontratazio-organoak, 2017ko azaroaren 21ean, idazki bat igorri ziola (hilabete bereko 27an jaso zuen). Idazki horretan eskatu zitzaion hamar egun balioduneko epean aurkeziz zitzala behin betiko bermea jarri zuela eta lizitazio-iragarki ofizialaren zenbatekoa ordaindu zuela egiaztatzen zuten frogagiriak, baita 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 13. artikuluan azaltzen diren zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzakoak bete direla egiaztatzen duten administrazio-ziurtagiriak ere (edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren kasuan ordainagiria edo aitorpena). Era berean, espedientean jasotzen da (eta errekurtsogileak onartu du) argibide-eskaera bat igorri zitzaiola (abendua 18an jaso zuen) bere proposamena erretiratzeari buruz (SPKLTBren 151.2 artikulua aipatuz), eta eskatutako dokumentazioa ez zuela aurkeztu.*

[...]

Ez da onargarria errekurtsogileak alegatzen duen arrazoia, alegia, dokumentazioa ez aurkeztea ez dela eskaintza erretiratzearen baliokide –SPKLTBk kontrakoa badio ere—. Lehenik eta behin, SPKLTBren 151.2 artikuluan aurreikusitako epea objektiboa da eta ez dago inolako baldintzari lotuta; hortaz, arauak automatikoki lotzen du eskatutako dokumentazioa dagokion epean ez aurkeztea eskaintza erretiratzearen ondorioarekin. Bigarrenik, "atzera egiteko eskaera" eta prozeduraren garapen arrunta okertzeko asmoz botere adjudikatzailari zuzendutako gainerako idazkiak estaldura formal bat besterik ez dira eta errekurtsogileak estaldura horren bitartez nahi du Administrazioak lizitazio berri bat iragartzea, oraingo lizitazioak baino baldintza hobeak eskainiko diona, edozein eskaintza aurkezten denean inplizituki dagoen zortea eta arriskua saihestuz.

[...]

... asmo hori oraindik sinatu gabe dagoen eta gaur egun oraindik negoziatzen ari diren hitzarmen kolektibo hipotetiko batetik eratorritako soldata-baldintza berri hipotetiko batzuen aplikazioan oinarritzen da.

[...]

Errekurtsogileak adjudikazio baten aurkako errekurtsio berezia erabili du, eta errekurtsogileak modu normalean jardun izan balu, adjudikazioa bere alde izango zen; aurkeztutako argudioa, hots, lizitazio-oinarriaren ustezko aldaketa, ez da gertatu, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa ez baitzen lizitazioaren aurretik aldatu eta gaur egun ere ez baita aldatu, eta Administrazioak kontratuan atzera egitea nahi izatea ez da oinarritzen inongo lege-urraketetan, SPKLTBren 155.4 artikulua eskatzen duen bezala, baizik eta errekurtsogilearen eskaerara egokitzen den lizitazio berri bat eratzeko nahian, nahiz eta horrek kontratu baten adjudikazioa, benetan lortu nahi ez dena, atzeratzea ekarri».

Beraz, inolako zalantzarik gabe, errekurtsogileak ordezkatzeko dituen hiru enpresak SPKLTBren 60.2.a) artikuluan aurreikusitako kasuan erori dira.

Debekuaren adierazpena emateko eskumena duen organoari dagokionez, SPKLTBren 61.3 artikulua azken paragrafoan ezarritakoaren arabera, 60. artikulua bigarren apartatuan aurreikusitako kasuetan, gu aztertzen ari garen kasua bezala, kontratazio-organuari dagokio kontratatzeko debekuaren adierazpena.

Puntu honetan, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak 2018ko abenduaren 5eko txostenean egin zuen azterketari lotuko gatzaizkio

«Kasu honetan, ez-betetzea ondoren aipatuko den xedea duen zerbitzuen administrazio-kontratua izapidetu bitartean gertatu zen. Aipatutako helburua honako hau da: "Anbulantzia ez-asistentzialetan, ohikoetan eta garraio kolektibokoan garraio sanitario programatuaren zerbitzua ematea Euskadiko osasun-sistemaren erabiltzaileei Bizkaiko osasun-barrutian – Ermua, Mallabia,

Otxandio eta Ubidea salbu– eta Arabako osasun-barrutiko Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondoko udalerrietan” (Esp.: 68/2016-S).

Espediente honetan, osasun-barruti bat baino gehiago hartzen duen lurraldez gaindiko kontratu bat denez, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren titularrari dagokio osasun-prestazioen alorrean berariazko kontratazio-organo gisa aritzea, prestazioak osasun-arlo bati baino gehiagori zuzentzen zaizkienean. Beraz, kontratazio-organoa Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea da, eta hura da, eta ez beste inor, kontratatzeko debekuaren adierazpena emateko organo eskuduna».

SPKLTBren 61.2 artikuluan ezartzen da debekuaren helmena eta iraupena horretarako izapidetutako prozeduraren bidez zehaztuko direla.

Eta SPKLTBren 61. artikulua 7. apartatuan, bigarren paragrafoko d) letran, ezartzen da kontratatzeko debekuaren adierazpena gauzatzeko prozedura ezin izango dela hasi hiru urte baino gehiago igaro badira, 60.2.a) artikuluan aurreikusitako kasuetan, adjudikazioa egin behar zen datatik hasita, baldin eta debekua 151. artikulua 7. apartatuan ezarritakoa ez-betetzean oinarritzen bada.

Kontratazio-organoak 2017ko azaroaren 21ean emandako Ebazpenaren bitartez, zeina ABEE interesduna 2017ko azaroaren 27an jaso baitzuen, 10 egun balioduneko epea ematen zitzaien, 151.2 artikuluan adierazten den bezala, dokumentazio jakin bat aurkezteko adjudikazioaren aurretik; epe hori 2017ko abenduaren 10ean bukatzen zen. Prozedurak behar bezala jarraitu izan balu aurrera, adjudikazioa 2017ko abenduan gauzatu izango zatekeen. Adjudikazioa gauzatu behar zenetik 3 urte baino gehiago igaro ez direnez, epearen barruan hasi da kontratatzeko debekua deklaratzeko prozedura.

Bestalde, debekuaren iraupenari dagokionez, kontuan izan behar da 61.6 eta 61.bis.3 artikuluetan ezarritakoa; izan ere, artikulua horietan ezartzen da iraupen-epea ez dela hiru urtetik gorakoa izango debekua dagokion erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

Debekuaren eraginpean egongo den Administrazioaren eremuari dagokionez, SPKLTBren 61.bis.1 artikuluan ezartzen da 60. artikuluaen bigarren apartatuan ezarritako inguruabarrak gertatzen diren kasuetan, kontratazeko debekuak adierazpena emateko eskumena duen kontratazio-organoaren eremuari eragingo diola. Kontratazio-organoa zein sektore publikotan dagoen integratuta, sektore publiko horretara hedatu ahalko da debekua.

Kasu horretan, kontratazio-organoak barnean hartzen du, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren 12.2 artikuluan zehazten denaren arabera, osasun-prestazioen alorrean berariazko kontratazio-organo gisa aritzea, prestazioak osasun-barruti bati baino gehiagori zuzentzen zaizkienean. Beraz, debekuaren adierazpenak, kasu honetan, osasun-prestazioen alorreko kontratazioa hartuko du barnean, prestazioak osasun-barruti bati baino gehiagori zuzentzen zaizkienean.

Eraginpean hartzen den debeku-eremuari dagokionez, SPKLTBren 151.2 artikuluan ezarritako obligazioa bete ez zuten adjudikaziodunak ABEE bat osatzeko konpromisoa harturik lizitazioan parte hartu zuten enpresak izan ziren: Servicio Asistido Médico Urgente SL, Transporte Sanitario Bizkaia SL, AMBUBASK SA eta Ambulancias Gipuzkoa S Coop.

AMBUBASK ABEE 2017 eratzeko hartutako konpromisoan, erakunde bakoitzaren partaidetza honako hau zen:

SAMU SL: % 33

Ordezkaría: Á. L. M. C.

TRANSPORTE SANITARIO BIZKAIA SL: % 33

Ordezkaría: Á. L. M. C.

AMBUBASK SA: % 33

Ordezkaría: Á. L. M. C.

AMBULANCIAS GIPUZKOA S COOP: % 1

Ordezkaría: R. P. Z.

ABEEko ordezkaría gisa Á. L. M. C. jauna izendatu dute.

SPKLTBren 60.1 artikuluan adierazten da ondorengo egoeretako batean dauden «pertsonek» ezin izango dutela sektore publikoarekin kontratatu. Era berean, artikulua bigarren apartatuan aipatzen da «*enpresaburuek zer kasutan ezin izango duten kontratatu...*».

Halaber, SPKLTBren 60.3 artikuluan ezartzen kontratatzeko debekuek enpresa hauei ere eragingo diela: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste zirkunstantzia batzuk direla-eta, pentsa badaiteke pertsona edo zirkunstantzia horiek tarteko izan dituzten beste enpresa batzuen jarraipena edo ondorioa direla –eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzaren bidez–.

Bestalde, gure kasuan, 60.2.a) artikuluan adierazten da doloa, errua edo zabarkeria dela medio izan behar duela. Dolo, erru edo zabarkeria horrek berekin dakar pertsona juridiko baten izenean jarduten duen pertsona fisiko baten egintza.

Hortaz, ABEE eratzeko konpromisoa, berez, ezin da kontratatzeko debeku baten xede izan. ABEE hori osatzen duen pertsona juridiko bakoitzaren ez-betetzeari bilatu beharko da erantzukizuna, zehazteko ea haietatik zeintzuk erori diren kontratatzeko debekua eragiten duen kasuan.

Kasu honetan, nabaria da ABEE osatzeko konpromisoa hartuta lizitazioan parte hartu zuten lau erakundeetako hiruren ordezkariaren dolozko jarduketak; izan ere, une oro, kontratazio-espeditatearen izapideak egin bitartean, ordezkari horrek jardun du botere adjudikatzailerarekin, bere asmoa eta SPKLTBren 151.2 artikuluan eskatzen den dokumentazioa ez aurkezteko asmoaren arrazoia adieraziz. Beraz, legez ezarritako eskakizuna ez betetzeko asmoa edo doloa egiaztatuta geratu da Servicio Asistido Médico Urgente SL, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA erakundeen ordezkariari dagokionez. Ordezkariak egindako jarduketek, une oro, eragiten dute programatutako garraio-kontratu berriaren adjudikazioa (68/2016) atzeratzea. Ikusten da erakunde horiek ez dutela kontratu horren partaide izan nahi, jarduketa hori justifikatzeko aurkeztutako idazkien arabera, baina kontratazio-espeditate hori (68/2016) adjudikatzen den bitartean, beraiek nahiko lituzketen baldintzetan egikaritzen jarraitzen dute. Programatutako garraio-zerbitzua eskaintzen jarraitu dute; izan ere, AMBULANCIAS BIZKAIA ABEE da –Servicio Asistido Médico Urgente SL, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA erakundeek osatua, legezko

ordezkaritzat duena ABEEaren ordezkari izendatu duten pertsona bera- 23/2011-GSP espedientearen kontratista, programatutako garraio-zerbitzua eskaintzen aritu dena 68/2016 kontratua Ambuibérica SL enpresarekin formalizatu den arte.

Baina Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzaren txostenak berak adierazten duenez, laugarren erakundearen, hots, Ambulancias Gipuzkoa S Coop erakundearen ordezkariaren doloa egiaztatzea zalantzazkoagoa da, ordezkari horrek ez duelako dolozko portaera hori agerian jartzen duen inolako ekintzarik gauzatu. Bestalde, hark ABEEren konpromisoan duen partaidetza hain txikia denez (% 1), ABEEren konpromiso horren edozein jarduketatan erabakiak hartzeko duen gaitasuna ezdeusa da, jakina. Azkenik, Osasun Sailaren jarduketa guztiek proposatzen dute kontratatzeko debekua aipatutako hiru erakundeentzat, baina azken erakunde hori ez dute sartzen debekuaren barnean.

Debekuaren adierazpena egiteko prozedurari dagokionez, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrak -aurrerantzean, APKLEO-19. artikuluan adierazten du kontratazio-organoari dagokiola kontratatzeko debekuaren adierazpena egiteko prozedura hastea, debeku hori eragiten duten gertakariak agerian jartzen badira kontratazio-espeditante baten izapideak egitea dela medio. Hala, Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordeak, 2018ko urriaren 15eko Ebazpenaren bidez, lehen prozedurari hasiera eman zion, zeinaren iraungipena deklaratu baitzuen 2020ko ekainaren 30eko Ebazpenean, eta 2020ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez hasiera eman dio bigarren prozedurari.

APKLEOren aipatutako 19. artikulua bigarren apartatuan adierazten da kontratazio-organoak espedienteari hasiera ematen dionean, zerbitzu teknikoaren eta juridikoaren txostenak gehituko zaizkiola espedienteari, eta, ondoren, entzunaldiaren izapidea bete beharko dela; hori egin ostean, espedientea organo eskudunari igorriko zaio ebazpena eman dezan edo Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeari, batzorde horri proposamena egitea dagokionean.

Gertatutakoari buruzko txostenak eta balioespen juridikoa igorri dira; txostenarekin batera, kontratatzeko debekuaren adierazpenaren ebazpen-proposamen bat egingo da.

Interesdunek aurkeztutako alegazioak jaso ostean, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zaio aztertzen ari garen txostena egin dezala; horregatik, ez dago inolako kexarik jarraitutako prozedurari dagokionez.

Kontratazio-organoak azkenean ematen duen ebazpena interesdunei jakinarazi beharko zaie (hori eskatzen du APKLEOren 20. artikulua) eta Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu beharko da, SPKLTBren 61.bis artikulua 2. zenbakian xedatzen denaren arabera:

«Autonomia-erkidegoen edo erkidego horietako lurraldean dauden toki-entitateen esparruko kontratazio-organoek kontratatze debekua jakinaraziko diete dagozkien autonomia-erkidegoetako lizitatzailen erregistroei, edo, halako erregistrorik ez badago, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialari».

Antzeko zerbait aipatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 44., 48.2 eta 50. artikuluetan; izan ere, artikulua horietan ezartzen da kontratatze debekuei buruzko inskripzioak ofizioz egingo dituela erregistroaren kudeaketaren arduradunak, sektore publikoko kontratuen legerian araututako moduan, eta erregistroko inskripzio horrek hau egiaztatuko duela: kontratatze debekuren batek, erregistroan jaso beharrekoen batek, eragiten ote dion, kontratua egin ahal izateko.

Azkenik, erregistroan inskribatu ondoren, debekuak ondorioak izango ditu, eta debekua amaitu eta hiru hilabete igaro ondoren iraungiko da inskripzioa. Debekuaren gehieneko iraupena hiru urte da (SPKLTBren 61. artikulua 6. apartatua) eta inskripzioa ofizioz ezereztu beharko da Erregistro horretan, hiru hilabeteko epe hori igaro ondoren.

Debekua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da (APKLEOren 20. artikuluko agindua).



IV. ONDORIOAK

Frogatuta dagoenez Servicio Asistido Médico Urgente SL, Transporte Sanitario Bizkaia SL eta AMBUBASK SA erakundeen legezko ordezkariak (A.L.M.C) dolozko jarduketa izan duela prozedura honen kausa den kontratazio-espedientean eskaintza erretiratzeari dagokionez, aipatutako hiru enpresentzako kontratazio-debekuaren adierazpen-proposamenaren aldeko irizpena ematen da; adierazpen hori Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordeak egin behar du.

Debekuaren eremua izango da osasun-barruti bati baino gehiagori zuzendu zaizkien osasun-prestazioei buruzko kontratuei dagokiena, eta hiru urteko iraupena izango du Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzen denetik aurrera. Debekuaren iraunaldia amaitu eta hiru hilabetera iraungiko da inskripzioa. Ofizioz ezereztuko da.